



Esp.-kodea: 2016SAPL0001

**UDAL PLENOA**  
**Bilkura arrunta**

**BILKURA DATUAK**

EGUNA: 2016/02/02	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 - 18:15	

**BILDUTAKOAK:**

- Lehendakaria: María Ubarretxena Cid (EAJ-PNV)
- Zinegotziak: Ibon Arrupe Aldecocca (EAJ-PNV)  
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)  
Ander Garay Zabaleta (EAJ-PNV)  
Amaia Ceciaga Garmendia (EAJ-PNV)  
Juan Karlos Garitano Ezkurra (EAJ-PNV)  
Amaia Azpiazu Aramburu (EAJ-PNV)  
Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJ-PNV)  
Eneko Barberena Mondragon (BILDU)  
Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)  
Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga (BILDU)  
Maialen Zabaleta Madinabeitia (BILDU)  
Jose Luis Encinas Jose (BILDU)  
Itxaro Artola Lizarralde (BILDU)  
Urki Larrea Ibabe (BILDU)  
Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE)  
Victoriano Fuentes Noguera (PSE-EE)  
Anabel Legaz Canflanca (PSE-EE)  
Igor Urizar Murgoitio (Baleike)  
Eva Abuin Bideburu (Baleike)  
Juan Luis Merino Sanabria (Irabazi Arrasate)
- Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta
- Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

**BILDU EZ DIREN**  
**UDALKIDEAK:**



Esp.-kodea: 2016SAPL0001

**BERTARATZE**  
**ETA IRTEERAK:**

Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):** Arratsaldeon denoi, beno gutxi gorabehera zinegotzi guztiak gaude hemen, eta Plenoari hasiera ematera goaz.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.**

2015eko abenduaren 15 eta 29ko bilkuretako aktak, aho batez, onartzen dira.

**2.- GIZARTE ONGIZATEKO BATZORDEKO LEHENDAKARITZARI ETA**  
**ESKUORDETZE ESPEZIFIKOAREN UKO EGITEAREN ETA IZENDAPEN**  
**BERRIAREN INGURUKO ALKATETZAREN EBAZPENAREN BERRI EMATEA**  
**(2015SKOR0001)**

Besteak beste, Arrasateko Udaleko Araudi Organikoaren 26.4 artikulua baita, Udal Plenoak, Alkateak 2015eko abenduaren 30ean hartutako ebazpen honen berri hartu du:

*Ikusirik apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.3 eta 23.4 artikuluetan xedaturikoa, Tokiko Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen (LBRL), Toki Erakundearen Antolamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudia onartu zuen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 43 artikuluan aurreikusitakoa eta Udaleko Erregelamendu Organiko 25 artikuluan eta hurrengoetan, eta bat datorren gainerako legerian xedatutakoa. Horretaz gain, Udal Araudi Organikoaren 40. Artikuluan eta 2568/1986 Errege Dekretuko 125. Artikuluan xedatu legez, Batzorde Informatzaileetako Lehendakaritzak bertako zinegotzi kideen gain eskuordetu daitezke.*

*Ikusirik, Alkateak eskuordetze generikoak eta eskuordetze espezifikokoak egin zituela uztailaren 13ko dekretuaren bidez, N 15/01590 zenbakiduna, eta horietako bat, Gizarte Ongizate arloko eskuordetze espezifikoa, Igor Urizar Murgoitio zinegotziaren alde egin zela. Zinegotzi berean eskuordetu zela Ongizate Batzordeko Lehendakaritza, egun bereko dekretu bidez (N 15/01585)*

*Ikusirik, Igor Urizar Murgoitio jaunak, 2015eko abenduaren 29an, ahoz, Alkateari adierazi diola, Batzordeko Lehendakaritzari eta eskuordetze espezifikoa egin nahi diola.*

*Legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez, hauxe ERABAKI DUT:*

***LEHENENGOA:*** *Igor Urizar Murgoitioaren uko egitea onartzea, eta beraz bere alde egindako Gizarte Ongizate Batzorde Informatzaileko Lehendakaritzaren eskuordetza eta arlo bereko eskuordetza espezifikoa ezeztatzea.*



Esp.-kodea: 2016SAPL0001

**BIGARRENA:** Amaia Azpiazu Aramburu zinegotziarengan eskuordetzea Gizarte Ongizate Batzorde Informatzaileko Lehendakaritza, indarrean dagoen legediak organo kolegiatuen lehendakaritzari ematen dizkion eskuduntzekin:

**HIRUGARRENA:** Amaia Azpiazu Aramburu zinegotziaren alde eskuordetze berezia egitea, Gizarte Ongizate arloko zerbitzu eta prestazio jakin batzuk (jarraian zehazten dira) kudeatzeko. Eskuordetze espezifiko hori atxikirik egongo da zuzenean Alkatetza-Udalburutzaren arlora eta Alkatearekin koordinaturik jardungo du. Eskuordetze honen egitekoen norainokoak barne hartzen du beste batzuei eragiten dieten administrazio egintzen bidez erabakitzeko abalmena. Zinegotzi eskuordetuak zerbitzu eta prestazio hauen inguruan erabakiko du:

a) Jarraian adierazten diren programetan laguntza ekonomikoak zein gizarte prestazioak onartzea:

- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak
- Babesgabetasun egoeretako kasuak
- Beren ingurune familiarra etor ezin diren pertsonen senideek bisitak egiteko laguntzak
- Etxeko Laguntza zerbitzua
- Drogamenopetotasunen tratamendurako laguntzak.
- Babesetxea erabiltzeko baimenak ematea.
- Norbere Fondoaren laguntzak

b) 6.000 €tik gorakoak ez diren kontratuak adjudikatzea eta zerbitzuen ohiko funtzionamenduak eragindako gastuak onartzea, bere eremuari atxikitakoak direnean eta betiere 6.000 € baino gutxiago denean

Emandako eskuordetze espezifikoek dagokienez, haren jardura gainbegiratzeko abalmena mantenduko du Alkateak eta eskuordetutako eskuduntzaren kudeaketaren informazio zehatza jasotzeko abalmena.

Eskuordetze horrek izatera mugagabea izango du eta iraungo du eskuordetze hori ezeztatu arte, Alkatearen agintaldia bukatu arte edo karguari berariaz uko egin arte.

Eskuordetzeak nahi dituenean aldatu eta ezeztatu ahal izango ditu Alkateak.

**LAUGARRENA:** Eskuordetze honi aplikagarri izango zaizkio, bere izaearen arabera aplikagarri diren uztailaren 13ko 15/01590 dekretuaren gainontzeko puntuak

**BOSGARRENA:-** Dekretu hau jakinaraztea zinegotzi afektatuei.

Amaia Azpiazu Aramburu zinegotziaren kasuan, ulertuko da eskumen hori onartu duela, baldin eta hurrengo hiru egunetan ezer adierazten ez badu haren aurka.

**SEIGARRENA.-** Dekretu honen berri ematea Udalbatzarrari, egingo duen lehenengo bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Udaletxeko Ediktuen Taulan jartzea.

**ZAZPIGARRENA.-** Dekretu hau Alkatetzako Erabakien eta Dekretuen Liburuan transkribatuko da eta egin eta hurrengo egunetik aurrera izango du balioa.



Esp.-kodea: 2016SAPL0001

**3.- PROPOSAMENA UDALBATZAREN OSOKO BILKURARI DESJABETZEKO ESPEDIENTE BAT HASI DEZAN, BEHAR DIREN ONDASUNAK ESKURATU DITZAN “ZARUGALDE KALEA 37AN DAGOEN ERAIKINA ERAITSI ETA INGURUA EGOKITZEKO OINARRIZKO PROIEKTUA” EXEKUTATZEKO. (2015HDJA0003)**

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

**IKUSITA** “*Zarugalde kalea 37an dagoen eraikina eraitsi eta ingurua egokitzeko oinarritzko proiektua*” behin betiko onartu zuela Tokiko Gobernu Batzarrak, akordioa hartuta 2015eko abenduaren 17an egindako bileran, akordioa jendaurrean jarri eta gero.

**IKUSITA** proiektu horrek eragindako ondasunak eta eskubideak eskuratzeko nahitaez desjabetu behar direla.

**IKUSITA**, aurrekoak betetzeko, proiektua behin betiko onartzeak dakarrela erabilera publikoko deklarazioa eta hark eragindako ondasunak eta eskubideak okupatu behar direla.

**IKUSITA**, desjabetze espedientea hasteko, desjabetze prozesuaren lehen faseak eragindako ondasunen eta eskubideen zerrenda zehatza eta banakakoa formulatu dela, bai eta haren titularren zerrenda ere, Nahitaez Desjabetzeko Erregelamenduaren 16. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**KONTUAN IZANIK** zer xedatzen den Nahitaez Desjabetzeko Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan, eta haren Erregelamenduari bat datozenetan, jarraitu behar den prozedurari dagokionez.

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzorde honek hauxe proposatzen du:

**I.-** Hastea nahitaez desjabetzeko espedientea, “*Zarugalde kalea 37an dagoen eraikina eraitsi eta ingurua egokitzeko oinarritzko proiektua*” exekutatzeko behar diren ondasunak eta eskubideak eskuratzeko.

*Ondorio horietarako, deklaraturatutako joko da desjabetzearen xedarearen edo helburuaren erabilera publikoa, hau da, eraikuntza hori eraitea, geroago espazio hori egokitzeko oinezkoentzat.*

Halaber, deklaraturatutako jotzen da ondasunak okupatu behar izatea, geroago aipatuko direnak, lehen esandako helburuetarako.

Zehatz eta banaka adieraztea zer ondasun desjabetu behar diren; horien deskribapen xehatua dator espedientean dagoen eranskinean, bai eta horien titularrenak ere, izan ere, haien laburpen taula hemen dator:



Esp.-kodea: 2016SAPL0001

Finka zenb./Nº Finca	Jabetza erregistroko datuak / Datos Registro	Kokalekua /Ubicación	Jabea/ Propietario	Eragindako azalera/ Sup afectada
1	Tomoa 496; Liburua 297; Folioa 171; Finka zenb. 15376 banandua.	Zarugalde kalea 37-etxabea ezk.	Juan José Otaduy Echevarria jauna eta Marina Pérez Mendiguren Fernández de Retana andrea.	70,38 m <sup>2</sup>
2	Tomoa 557; Liburua 333; Folioa 191; Finka zenb. 6642.	Zarugalde kalea 37-etxabea esk.	M <sup>a</sup> Begoña Ceciaga Abarrategui andrea (erdi bat banatu gabe) eta M <sup>a</sup> Aránzazu Ceciaga Abarrategui andrea Anton Oquina Aguirre jaunarekin (beste erdi bat banatu gabe).	29,04 m <sup>2</sup>

Eta errentamendu eskubideak edo beste edozein, ondasunei eraginez gero, esan bezala, eta jasota ez badaude udal bulegoetan.

Lurzoaruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 178-2 artikuluan ezarritakoaren arabera, presako deklarazioa Arrasateko Udalak hori okupatzeko, ondasunak eta eskubideak nahitaez desjabetzeko, “*Zarugalde kalea 37an dagoen eraikina eraitsi eta ingurua egokitzeko oinarritutako proiektua*”n jasota dagoena jarduna exekutatzen da.

**III.-** Presako deklarazio hori oinarrituta dago honetan: Arrasate pasealekuan berriro urbanizatzeko obrak exekutatu ostean eta ikusita proiektu horren xed eremua zer gertu dagoen, eremu horrek behar du azkar egokitzea hura oinezkoen erabili dezaten.

Akordioa argitaratzea lurralde historikoko zabaldunde handienetako egunkari batean, lurralde historikoko Aldizkari Ofizialean, Udalaren ediktu taulan, eta jakinaraztea interesdun bakoitzari, **HOGEI EGUN** balioduneko epean datuak ekartzeko, baldin eta zerrenda argitaratuan akatsak zuzendu behar badira, edo ondasunak edo eskubideak okupatu edo hartzearen aurka egiten badute, forma edo fondo arrazoiengatik, arrazoiz oinarritu behar dituztenak.

Ondasunen material edo legeko deskripzioan akatsak zuzentzeko baino ez, edozein pertsona natural edo pertsona juridiko agertu daiteke alegatzaera beharrezkotzat jotzen dituen aurrekariak edo erreferenteak.

Erreklamaziorik ez badago aipatu epean, behin betiko onartutzat joko da ondasunen zerrenda zehatza, eta hasitzat joko da nahitaez desjabetzeko espedientea, eta interesdunei esango zaie prezio bat proposatu behar dutela, ondasun horiek elkarren artean ados jarrita erosteko.

#### **4.- DESJABETZEKO ESPEDIENTEA D ATALEKO (AUZOKO GARBITOKIA ETA ITURRIA EGOKITZEA) LANAK EGITEKO BEHAR DIREN ONDASUNAK**



Esp.-kodea: 2016SAPL0001

**ESKURATZEKO, UDALA-BESAIDE BIDEAREN ETA HAREN INGURUAREN NATURA ETA KULTURA BALIABIDEAK ERREKUPERATU ETA HOBETZEKO TESTU BATEGINAREN OBREI DAGOKIENEZ: AURKEZTU DIREN ALEGAZIOAK. (2015HDJA0002)**

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

**IKUSITA**, 2015eko azaroaren 3an egindako bileran, osoko bilkurak egin zuela desjabetzeko ondasunen eta eskubideen zerrenda zehatza eta banakako bat, “*Udala-Besaide bidearen eta haren inguruaren natura eta kultura baliabideak errekupearatu eta hobetzeko testu bategina*”ren D fasean (auzoko garbitokia eta iturria egokitzea) datorren jarduna egiteko.

**IKUSITA**, akordioa argituratu zelarik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoko zabalkunde handienetako egunkari batean, interesdunei banan-banan jakinarazita, jendaurreko epean, hartarako irekia, alegazio idatzi bat aurkeztu duela LUIS MURGOITIO AZCOAGA jaunak, zeinetan, labur, adierazten duen alegazio egilea ez dagoela ados desjabetzarekin, uste baitu hura ez dagoela justifikatuta eta ez duela nahiko entitaterik erabilera publikoa izateko eta proportzio gabekoa dela desjabetzarekin sortzen den kaltea.

Ikusirik udaleko zerbitzu teknikoek zer txosten egin duten, eta

**KONTUAN IZANIK**, aurkeztu duen alegazio idatziari buruz, hauek:

1.- Desjabetzearen ondorioz datorren proiektuaren helburua daa errekupearatzea eta hobetzea Udala-Besaide bidearen natura eta kultura baliabideak.

2.- Udala-Besaide bide horrek balio handia du natura, kultura eta paisaia aldetik, eta horregatik hobetu eta errekupearatu behar dira haren inguruko natura eta kultura baliabideak. Baliabide horien artean elementu batzuk daude, hala nola Udala auzoko garbitokia eta iturria, proiektuaren D fasean jasota daudenak.

3.- D fase horrek, lortu nahi den hleburuarekin bat etorrira, ez dakar bakarrik auzoko garbitokia eta iturria egokitzea, inguruko landaretza eta zuhaitzak errekupearatzea ere bai, hemengo espeziekin; horrek ekarriko luke, gainera, Udalatx esparrua osotasunean hobetzea paisaia ikuspegitik.

4.- La ejecución de las actuaciones contempladas en el “*Udala-Besaide bidearen eta haren inguruaren natura eta kultura baliabideak errekupearatu eta hobetzeko testu bateginean*” jasota datozen jardunak exekutatzek oinarria du bete beharra dagoela 7/1990 Legean ezarritakoa, uztañaren 3koa, Euskadiko Kultura Ondareari buruzkoa, eta 1/2014 Dekretuan ezarritakoa, apirilaren 15ekoa, zeinak onartzen baitu Euskadiko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina.

5.- Azaldutako guztiarengatik, alegazioa ez onartzea baino ez dugu, eta berriro berretsiz hasitako desjabetzea legítimoa dela, bai eta jarduna ekarri duenaren interesa eta erabilera publikoa ere.



Esp.-kodea: 2016SAPL0001

Jabetza nahitaez kentzeko Legearen 9tik 21 arteko artikuluetan xedatutakoaren arabera, haren Erregelamenduaren 15. artikulua eta hurrengoaren arabera, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenen arabera.

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzorde honek hauxe proposatzen du:

**I.-** Erantzutea LUIS MURGOITIO AZCOAGA jaunak egin dituen alegazioei, goia jasotako kontuan izanik atalean esandako hitzetan.

**II.-** Behin betiko onartzea desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen zerrenda, *“Udala-Besaide bidearene ta haren inguruaren natura eta kultura baliabideak errekupearatu eta hobetzeko testu bategina”*ren D fasean (auzoan garbitokia eta iturria egokitzea) datorren jarduna exekutatzeko.

Zerrenda dago ERANSKINA agirian, akordioan sartuta dagoena.

**III.-** Adieraztea zerrenda horretako ondasunen eta eskubideen titularrei HAMABOST EGUNeko epe batean (akordioa jakinarazten den egunetik aurrera) prezio bat proposatu dezaten, elkarrekin ados jarrita erosteko, indarrean dagoen legerian ezarrita dauden balorazio irizpideak erabilia.

**IV.-** Ahalmena ematea alkate-udalburuari, edo legez ordezkatzan duen alkateordeari, behar diren jardunak egiteko ondasunen eta eskubideen balio justua zehazteko fasearen tramitazioan, desjabetze espediente honek eragindakoak.

Lurzoaruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 178-2 artikuluan ezarritakoaren arabera, presako deklarazioa Arrasateko Udalak hori okupatzeko, ondasunen eta eskubideen jabetza nahitaez kentzeko, *“Udala-Besaide bidearene ta haren inguruaren natura eta kultura baliabideak errekupearatu eta hobetzeko testu bategina”*ren D fasean (auzoan garbitokia eta iturria egokitzea) datorren jarduna exekutatzeko behar direnak.

Presako deklarazio hori oinarrituta dago proiektu horretako gainerako faseetako jardunak daudela exekutatzan, eta komenigarri dela D faseko lanak aldi berean exekutatzeko.

## **5.-ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI HARTZEA**

Udalbatzak Alkatetzako ebazpenen berri hartu du.

## **6.- GALDE-ESKEAK.**



---

Esp.-kodea: 2016SAPL0001

---

**I.ARTOLA (EH-BILDU):**

Jakin gureko geinke azaroaren 3ko plenoan mozio bat aurkeztu zan Eusko Jaurlaritzari ospitaleko makina edo erresonantzia magnetikoen unitatearen inguruan eskaera pare bat eginez eta bueno hiru hilabete pasa dira eta jakin gureko geuk ezertan dagoen kontua.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Eskakizuna bidalita dago Eusko Jaurlaritzara. Azkenean mozioan jasotakoaren arabera eskakizuna ez dakit Amaia zuk buruz jakingo duzun baina bestela kopia nahi baldin baduzue emango dizuegu baina kopia bueno eskakizun ofiziala bidalita mozioan jasotzen zanarekin bat eginez.

**I.ARTOLA (EH-BILDU):**

Eskertuko geunke kopia bidaltzea.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Nahi baldin baduzu gero monetu baten emango dizu kopia.

Besterik? Gaurko plenoari amaiera emango diogu. Eskerririk asko.

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 18:15tan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2016ko otsailaren 2a

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

María Ubarretxena Cid